



**Baztango
Udala**

ALMANDOZ · AMAIUR · ANIZ
ARIZKUN · ARRAIOZ · AZPILKUETA
BERROETA · ELBETE · ELIZONDO
ERRATZU · GARTZAIN · IRURITA
LEKAROZ · ORONOZ · ZIGA

BAZTAN

INFORMAZIO OHARRA, BAZTANGO ORDENANTZA, ZERGA ETA PARAMENTU BERRIEN
ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPEN PROZESUARI BURUZKOA

2020ko uztailaren 22an Baztango Batzar Nagusiak egindako ezohiko bilkuran, Baztango Ordenantza, Zerga eta Paramentu Berrien aldaketa hasiera batean onestea erabaki zuen.

Iragarki bat argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Baztango Udaleko iragarki-oholean, eta adieraziko da espedientea jendaurrean jarriko dela hogeita hamar egunez. **Iragarki horiek argitaratu ondoren, eta adierazitako epearen barruan, interesdunek ordenantzak aldatzeko espedientea azter dezakete, eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzakete.**

Espedientea oraindik jendaurrean ez badago ere, informazio-ohar honekin batera ordenantzen testua argitaratzen da web-orrian, interesdunek denbora gehiago izan dezaten hasiera batean onartutako ordenantzen aldaketak aztertzeko.

2020ko uztailaren 23an

Joseba Otondo Bikondoa

Batzar Nagusiko lehendakaria

